

M<sup>a</sup> CONCEPCION UGALDE IZETA Begarako Udaleko Idazkariak

**EGIAZTATZEN DU** Alkate andreak, 2019ko martxoaren 22an ondorengo dekretua eman duela:

“Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2019-KALD-000004-00 zenbakiduna,

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita Ogasuneko Batzorde Informatiboak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena.

Guzti hori ikusita eta arestian aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

**ERABAKI DUT**

**Lehenengoa.**- Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea onartzea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**KREDITU GEHIGARRIAK**

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.643.925.00.00 2019	HERRIT PARTAID- IDEIA LEHIAKETA	260.000,00	83.000,00	343.000,00
1 0320.622.342.20.01 2019	LABEGARAIETA	930.057,00	120.000,00	1.050.057,00
1 0220.601.165.00.01 2019	ARGITERI PUBLIKOA	70.000,00	40.000,00	110.000,00
1 0220.601.153.21.01 2019	HERRIGUNAREN ZOLADURA	40.000,00	50.000,00	90.000,00
<b>GUZTIRA</b>		1.300.057,00	293.000,00	1.593.057,00

## FINANTZAKETA

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0101.870.010.00.01 2019	Diruzaintz. Gerak. garbia - Gastu Orokor	293.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			293.000,00

**Bigarrena.**- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.”

Eta horrela jasota gera dadin, luzatzen du egiaztagiri hau, Bergaran, 2019ko martxoaren 22an.

